

AMIKUZE

© FRANTXOA COUSTEAU

BANAKETA

(Tauladara iristen diren ordenan)

1. Jan-Battitt
2. Maddi
3. Pilla
4. Antton
5. Mattin
6. Xobür
7. Bittor
8. Pettan
9. Jakes
10. Kondalari 1 eta 2
11. Neska 1, 2, 3, 4 (Aña eta carole barne)
12. SAUR, EDF, RENAULT, FERGUSON, PONY

Belarren sasoia.

1960 urtea, Amikuzeko etxalde batean. Ekaineko lehen egunetan gira, goizeko sei orenak jo berri dutela. Jan-Battitt, etxeko nagusia aspaldian xutitua da eta doi bat zainetan, lehen belarren garaia etorria baita.

Jan-Battitt : (C-tik sartuz) : Pilla !... Pilla !... Pilla !...

Maddi : (J-tik sartuz, erratza eskuan) : Bainan zer duzu ba hola oihuka aritzeko, Jan-Battitt ?

Jan-Battitt : Zer deabru ari da gure mutiko hura ?

Maddi : Pilla ?... Be, ohean da...

Jan-Battitt : Ohean, tenore huntan ?

Maddi : (*Sukaldea erraztatuz*) : Bainan sei o'nak dira bakarrik... Utz ezazu, gaixo mutikoa...

Jan-Battitt : Argitzen ari da, ez duzuia ikusten... Eta orhoitarazten dizut zure semea ez dela gehiago ñiñi bat : hamasei urte baditu !

Maddi : Ukanen du ba gero ere goizik jeikitzeo parada, Jainko maitea !...

Jan-Battitt : Jakin ezazu gure aita zenaren denboran goizago harrotzen ginela !

Maddi : Bainan Jan-battitt, garaiak aldatu dira, zer nahi duzu... Mila bederatzi ehunta hiruetan-hogoi-ean gira !... Ez gira Clémenceau-ren denboran !...

Jan-Battitt : Cémeceau eta Daladier utz'zkitzu bakean !... Belarra pikatu behar dugula, BELARRA MOZTU, alo !!!... (*Ateratzen da, C*).

Maddi : (J-rat buruz oihukatuz) : Pilla !... Pilla, alo, harro zaite !

Pilla : (J-tik sartuz aharrosika) : Boo, biziki goiz da... Zer du ba, aitak, hola oihuka aritzeko ?

Maddi : Fitsik, fitsik !... Ale, askaria har ezazu.

Pilla : (*Beti aharrosika, besoak altxatuz*) : Kafe-esnea preparatzen didazu, ama ?

Maddi : Nola ?... Aski handia zira ba zuhaurek egiteko !...

Pilla : (*Askaiteko jarriz, taulada erditsutan, doi bat "J"*) : Ale ama, otoi !...

Maddi : (*Erratza pausa eta eskuak taulierrean torratuz*) : Ai ama !... Oraiko haurrak !... (*Ateratzen da, J, eta berriz sartzen, kafe-esne untzia esku batean, gatilua bertzean*) : Ale, oizu. (*Gatilua eman eta zerbitzatzen du. Ateratzen da, J*).

Pilla : (*Edan eta grimasa eginez*) : Ama !... Beroegi da !...

Maddi : (*Berriz agertuz*) : Hotzegi baino hobe da !... Ufa ezazu, eta hara !... (*Ateratzen da, J*).

Pilla : (*Beti grimasaka*) : Ama !... Konfiturarik ez da ?

Maddi : (*Berriz agertuz*) : Atzo arratsaldean azken untzia jan duzue !

Pilla : (*Ama ateratzear dela*) : Eta burra ?

Maddi : (*Zainak ezin gordez*) : Ez zaitela zinkurinaz has he... Ogi zopak badituzu, eta ogi freskoarekin gainera : atzo egina !... (*Ateratzen da, J*).

Pilla : (*Bakarrik, mutur beltz*) : Ogi zopak... Beti ogi zopak...

Jan-Battitt : (*C-tik sartuz, bere semeari*) : Ale, erna hadi Pilla, sei'onak dituk, laneko tenorea diuk.

Pilla : (*Beti bere gatilua eskuan*) : Ni nauzu beti erasiatzen, aita : besteak sekulan.

Jan-Battitt : Hi haiz gehena Pilla, eta etsenplua eman behar duk. Eta ez zakala ahantz etxearen segida hik hartu beharko dukala egun batez.

Pilla : Badakit aita, badakit.

Jan-Battitt : Eta Antton, nun da ?

Pilla : (*Ez dakiela erakusten du*).

Antton : (*J-tik sartuz, xantxa eskuan*) : Hemen naiz, nagusi.

Jan-Battitt : Ah, azkenean !... Ikusi duk tenorea ?

Antton : Barkatu nagusi, bainan behiak deitzi dituk.

Jan-Battitt : (*Pixka bat genatua*) : Bon, bon... ados... Ale, erna hadi !... (*Ateratzen da, C*).

Antton : (*C aldera joan eta, Pilla-ri*) : Zer du, kakeria ?

Pilla : Bego, bego... haize hegoa !...

Antton : (*Ferblankazko gatilu ttipi bat sakelatik ateratu eta, xantxako esne gordinez betatzen du, C*).

Pilla : (*Harritua*) : Zer, esne gordina edaten duk, hik ?

Antton : (*Drago bat edan eta*) : Hau duk esne hoberena : deitzi berri berria, bero beroa.

Pilla : (*Okastatua*) : Puah, bainan mikrobaz betea duk !

Antton : Ah, ageri duk etxeko semea haizela, hi... Zinez gastatua !... Hogo urtez mutil egona nuk ni, etxez etxe !... Ez diat beti kafe-esne sukratuaren edateko paradarik ukan, zer uste duk...

Antton / Pilla : (*Biek edaten dute, arrabots handia eginez*).

**Orai hiru seme gazteenak sukaldera sartzan dira, J-tik, begiak loz hantua eta aharrosika.*

**Mattin, Xobür eta Bittor deitzen dira. Jartzen dira, erdi lo, erdian eta Pilla-ren aldean, J.*

Antton : (*Beti C-tik*) : Ah, hara etxeko pottoloak. (*Ixil une bat*). Goizean, jendeak agurtzen dira.

Hiru semeak : (*Erdi lo*) : Bai, egun on Antton...

Pilla : (*Bere hiru anaieri*) : Eta ?...

Hiru semeak : (*Erdi lo*) : Egun on Pilla...

Mattin : Ama !... Gose !...

Xobür : Ama !... Gose naiz !...

Bittor : Ama !... Askaria !...

Maddi : (*Sartzen da, J-tik, hiru gatiluak taulatxo batean emanik*) : Bai bai, heldu... (*Zerbitzatzen ditu*).
Ale, pottoloak, erna zizte eh... (*Ateratzen da, J*).

Antton : (*Beti C-tik, publikoari*) : Ikusten dituzue, etxeko semeak ?... Gastatuak, gastatu purikatuak !...

Jan-Battitt : (*C-tik sartuz, kexu*) : Bainan zer ari zirezte, ez duzue goiz guzia mahainean pasatuko, arauz ?...

Maddi : (*Sartzen da, J-tik*) : Oh, gizona ixil zaite otoi !... Askaldu behar dute halere !...

Jan-Battitt : (*Botza altxatuz*) : Bainan nork du manatzen etxe huntan ?...

Maddi : (*Beti J-tik*) : Zuk !... Badakigu... zuk, zuk !...

Jan-Battitt : (*Esku ezkerra luzatuz*) : Antton, habil behien uztartzera !... (*Antton ateratzen da, C*).
(*Esku eskuina luzatuz*) : Pilla, furtxina eta arresteluak bil'azkik !... (*Pilla atera, J*).

Antton : (*C-tik agertuz*) : Nagusi, auzoak hor dira.

Jan-Battitt : (*Beti kexu*) : Sar arazkik, alo !... (*Antton ateratzen da*). (*Maddi-ri*) : Haur horiek zer ari dira hemen ?... Are, atera hemendik !... Auzoak hor dira, are, erna, erna !...

Maddi : (*Haureri*) : Ale, zoazte hemendik !... (*Hiruak ateratzen dira, J, gatiluak eskuan*).

Jan-Battitt : (*C aldera, irripartsu*) : Ah, egun on lagunak : aitzina, aitzina !... (*Bi auzoak aitzinatzen dira*).

Maddi : (*Bi alki hurbiltzen ditu, J-tik, auzoentzat*) : Egun on, Pettan eta Jakes !

Pettan : Bai, zuri ere !

Jakes : Egun on Maddi !...

Jan-Battitt : (*C-tik, arno eta godaletak eskuan, irripartsu*) : Ah, lagunak, zer atsegina... Jar zaizte, jar...
(*Bi auzoak jartzen dira*).

Maddi : (*J-tik, ikusliarreri*) : Etxekoekin otso, auzoekin urtso !... (*Ateratzen da, J*).

Pettan / Jakes : (*Doi bat harrituak, Maddi-ren ateratzea begiratzen dute, burua eskuin itzuliz*).
(*Gero itzultzen dira Jan-Battitt-eri buruz ; ez dakite zer erran*).

Jan-Battitt : (*Godaletak emanez*) : Drago bat hartuko dugu...

Pettan : Uste duzu ?... Tenorea ari da aitzina...

Jan-Battitt : (*Arnoa emanez*) : Bai zera... Eguna luze izanen da, badakizu...

Jakes : Egia da, ekainean izanez, urteko egun luzeenak ditugula !...

Jan-Battitt : Hortakotz !... (*Godaletak luzatuz*) : Zuen osagarriari... (*Godaletak klixkez husten dituzte*).

Antton : (**C**-tik agertuz) : Nagusi, behiak uztartuak dira.

Jan-Battitt : (*Harrapatua*) : Bai, bai, untsa...

Pilla : (**J**-tik agertuz) : Aita, dailu, furtxina eta arresteluak bilduak ditut...

Jan-Battitt : (*Harrapatua*) : Bai, bai, heldu, heldu...

***Jan-Battitt**-ek godalet eta arnoa gordetzen ditu, **C**.

***Pettan** eta **Jakes**-ek eskuin hartzen dute, **J**. Xoko batean ziren 3 dailuak hartzen dituzte.

***Pettan** eta **Jakes**-ek erdira egiten dute, taulada zolatik. Dailu bat **Jan-Battitt**-eri emaiten diote.

Mattin : (*Bi alkiak eskuetan hartuz*) : Jaun-andereak, belar epaiteak, amikuzen, 1960 urtean !... (*Alkiak J aldera eramaiten ditu*).

*Dailu hirukotea lekuan emaiten da, **Jan-Battitt** erdian, eta beste biak baino aitzinaxago.

*Beste sei lagunek dailuzaleak inguratzen dituzte.

Xobür : (**C** aldetik) : Epailleak, prest ?... (*Hiru epailleek tu egiten dute eskuetan*). Bat, bi, hiru !...

*Lagunek erritmo bat joko dute, agian ikuskizuneko kantari eta musikarien parte hartzearekin.

Jan-Battitt/Pettan/Jakes : (*Erritmoan*) : Clap clap clap haan !... Clap clap clap haan !... (**5 aldiz**).

Bittor : (**J** aldetik) : Dailua, egiazko gizonen tresna. Beha gizon horien besoak, papo eta izterrak. Aitzinean, Jan-Battitt, etxeko nagusia, bixtan dena !... Bere aldean, Pettan eta Jakes auzoak !

Xobür : (**C** aldetik) : Indarra eta oldarra ez dira aski. Izigarriko trebezia galdegiten du, dailuak. Bestela, punta lurrean sartzan baduzu, denen irringarri bilakatzen zira !... Dailua ez baita aitzurra gero !...

Mattin : (**J** aldetik) : Eta orai, jaun-andereak, aspaldi danik ahantzia duzuen jestu miresgarria : dailuaren xorroxtea !...

*Hiru epailleek dailua itzuli eta harria eskuan hartzen dute.

Xobür : (**C** aldetik) : Bat, bi, hiru !...

Jan-Battitt /Pettan / Jakes : (*Erritmoan, besteen parte hartzearekin*) : Clap xraan !... Clap xraan !... Clap xraan !... Clap xraan !... Clap xraan !... Clap xraan !... Clap xraan !... (**10 aldiz**).

*Hiru epailleek harria xitxoan sartu eta dailua itzultzen dute.

Xobür : (**C** aldetik) : Epailleak, prest ?... (*Hiru epailleek tu egiten dute eskuetan*). Bat, bi, hiru !...

Jan-Battitt/Pettan/Jakes : (*Erritmoan*) : Clap clap clap haan !... Clap clap clap haan !... (**5 aldiz**).

*Hiru epailleek hatsa hartzen dute giderraren gainean bermatuz.

Bittor : (**J** aldetik) : Eta orain, zintzuraren freskatzea : uste dut merexitua dutela. Txaloak !...

*Hiru epailleek xahakotik edaten dute, dailuen giderrak papoaren gainean bermatuak dituztela.

Jan-Battitt : (*Harro*) : Antton eta Pilla, belar hori harrotuko duzue !... Haurrak, bazterrak arrestelatuko dituzue !

**Musika indartsu bat.*

**Hiru epaileak, dailuak bizkarrean emanik ikuslierreri buruz aintzinatzen dira, urratsean, harro.*

**Ikuslierrak agurtzen dituzte, txaloak lortzen dituztela.*

**Soldadoen moldean gibelera itzul eta ateratzen dira, nagusia J, eta auzoak C.*

**Denak ateratzen dira, Antton eta Pilla ezezik.*

Pilla : (*Furtxina eskuan, belarra harrotuz*) : Ale, berriz ere lan gaixtoa guretako.

Antton : Ikusi dituk, beste horiek ?... (*Nagusia eskarniatuz*) : "Antton eta Pilla, belar hori harrotuko duzue !..."

Pilla : Egia duk : Napoleon-entzat hartzen dik bere burua !

Antton : Eta hik ono xantza baduk... Etxeko segida hartuko baituk... Nagusi izanen haiz.

Pilla : Ba, hi ere berdin. Etxe oneko neska batekin ezkondu behar huke...

Antton : Aise duk erraitea... Berrogoi urte baditiat... Eta, herriko neskeek ez die ni bezalakorik nahi... Mutila nuk, besterik ez...

Pilla : Ale ale, segur nuk emazte geia badukala...

Antton : Eta hi ?... Zertan hiz Añarekin ?...

Pilla : (*Genatua*) : Aña ?... Zoin Aña ?...

Antton : (*Kitzikalari*) : Ale ale, ikusi zaituztet igandean...

Pilla : (*Oldartuz*) : Bon, hi, okupa hadi hire aferetaz !

Antton : Ez hadila kexa, Pilla. Drago bat edanen diauk.

Pilla : (*Idor*) : Ez nuk egarri.

Antton : (C *aldera joanez*) : Ago ixtan bat... (*Zareño bat ekartzen du eta pausatzen. Bi godalet hartu eta "Pernod" botoila bat ateratzen du*). Orduan, zer diok huntaz ?...

Pilla : Menstia haiz ala... nundik duk hori ?

Antton : (*Holako keinutxo bat egiten du. Pernod xorta bat godaletetan ixur, ur tintta bat gehitu eta gogotik edaten dute*) : Ah, hau, paso bat baino hobe duk to...

Pilla : Bon, ale, goazen. (*Ateratzen da, J*).

Antton : (*Zarea untsa gordetzen du, C aldean. Ezker / eskuin ongi begiratuta, ateratzear da, C*).

Maddi : (J-*tik sartuz*) : Orduan Antton, fini duzue ?...

Antton : (*Harrapatua da. Zarea pausatu tokirat begirada labur bat*) : Euh... bai... bai, bai...

Maddi : Bainan zer duzu Antton ?...

Antton : Nik ?... fitsik, fitsik... (*Ateratzen da, C*).

Maddi : (*J aldera oihu*) : Haurrak, zatozte arrestelatzera... (*Lanean hasten da, bainan nehor ez da ageri*) : **Mattin**, **Xobür** eta **Bittor**, zatozte arrestelatzera !...

**Hurbiltzen dira, zangoak herrestan, ttur ttur.*

Mattin : Gu, beti arresteluarekin gira... Nardatzen nau !...

Xobür : Nik ere nahi nuke dailuarekin arizan, ez beti aita.

Maddi : Dailuarekin handituta ariko zira... Segi zazu lana.

Bittor : Egun batez dailurik ez da izanen, denak maxinekin eginen baitituzte...

Mattin : Zer kondatzen duzu Bittor ?... Belarra maxinekin ?

Bittor : Bai, dena !... Pikatu, harrotu, eta kargatu !

Xobür : (*Kantatuz bezala, trufatzeko*) : Bi-ttor zo-zo-tu-a da, zo-zo-tu-a da !... (*Marti eta Xobür irriz*).

Bittor : Zuek sobera zozoak zirezte !... (*Aharra gorrian hasten dira, itzulipurdika*).

Maddi : (*Eskua luzaturik J*) : Zoazte hemendik eta bakimazue !... (*Ateratzen dira murmuzikan. Amak segitzen du bakarrik lanean*).

Besta garaia.

Kondalari 1 : Ikusi dugu belarrak nolako omore onean egiten zituzten, Amikuzeko etxeetan, mila bederatzi ehunta hirurogoi urtean. Ekaina, egun ederrak, eta egun ederrekin herriko bestak !...

**Fandango. Neskak dantzan hasten dira, tira'hala. Mutikoak bi bazterretan, so, basoa eskuan.*

**Slow. Neskak jartzen dira, plaza inguruan. Mutikoek itzulia egiten dute, ordularia ez bezala :*

Pettan : (**J**, *Kasik ikuslierren bisean-bis*) : Dantzan arizan nahi duzu ?

Neska 1 : Ez, milesker !...

Pettan : (**C**, *Kasik ikuslierren bisean-bis*) : Dantzan arizan nahi duzu ?

Neska 2 : Ez, milesker !...

Jakes : (**J**, *Kasik ikuslierren bisean-bis*) : Dantzan arizan nahi duzu ?

Neska 3 : Ez, milesker !...

Jakes : (**C**, *Kasik ikuslierren bisean-bis*) : Dantzan arizan nahi duzu ?

Neska 4 : Ez, milesker !...

**Beste batzuk ere "Dantzan arizan nahi duzu ?" galdegin lezakete, beti ondorio ezezkor berarekin.*

Pettan : (**C**, *bere eskuinean izanen duen Jakes-eri*) : Ez duk posible eh, neska horiekin...

Jakes : (**J**, *taulada aitzinean*) : Egia duk Pettan, zer neska ñuñulinak !... Goazen ostatura.

**"Slow-ak" segitzen du, bainan nehor ez da dantzan ari. Mutiko guziak berriz bi bazterretan, so.*

**"Twist" batek segida hartzen du. Neska guziak berriz dantzan, tira'hala. Mutikoak beti so.*

Pettan : (*Taulada aitzinera hurbilduz, oihu handi bat*) : Toro de fuego !...

Toro de fuego : (*Sartzen da taulada zolatik, denak iziarazi eta lasterkarazten dituela*).
(*Ateratzen delarik, mutikoak baizik ez dira gelditzen tauladan*).

Pettan : (*Taulada erdira etorriz, godaleta altxatuz*) : Aupa Jondoniko bestak !...

Mutikoak : (*Pettanen inguruan emaiten dira*) : AUPA JONDONIKO BESTAK !... (*Edaten dute*).
(*"Xahakua" kantua emaiten dute*).

Jakes : Bon be, ni etxera banoa : leher'ina naiz. Bihar arte lagunak !

Pettan : Ago, Jakes, hirekin heldu nauk. Addio !... (*Ateratzen dira J*).

**Besteak ere ateratzen dira, J, salbu Antton eta Pilla.*

Antton : Ale, Pilla, goazen etxera.

Pilla : Ez, Antton, habiloa : nik pentzean lo eginen diat.

Antton : Kanpoan ?... (*Begi klixka bat egiten dio*) : Deabru kokina hi, Añarekin hitzartua haiz...

Pilla : Oh, nardatzen nauk azkenean, hire "Añarekin !"

Antton : Ez hadila kexa, Pilla... Bon, be, egizak lo... Eta kasu mamueri... (Ateratzen da, **J**).

Pilla : (Taulada doi bat zeharkatzen du, izarrak begiratzuz. Gaueko ttirritak entzuten dira).
(Gelditzen da ; besoak altxatu, aharrosia egin eta etzaten da. Tanpez lokartzen da).

Aña : (Musika. **Aña** tauladara sartzen da, irripartsu eta mogimendu eztiak eginez ; dantzan ari da).
(Dударик gabe, **Pilla** ametsetan ari da).
(Musika eztitu eta **Aña** ateratzen da, **C**).

Pilla : (Bat batean iratzartzen da, oihu bat eginez. Xutitzen da, ezker/eskuin begiratzuz du, eta ateratzen da, **J**).

Kondalari 2 : Hiru urte berantago !... Eta bai, zorionez, amodioak beti irabazten du : huna **Aña** eta **Pillaren** ezteiak !

Musika. **Aña ateratzen da, **C**-tik, eta **Pilla** **J**-tik. Elgarretaratzen dira taulada erdian.*

Gomitak bi alderdietan emanak izanen dira : mutiko guziak alde batean, **J, eta neskek bertzean, **C**.*

Denak : Biba espos berriak !... Biba espos berriak !...

Pilla : Milesker lagunak, milesker deneri. Orain, besta eginen dugu !

Aña : Bai, milesker zueri !... Bainan, lehenik... (Papertxo bat zakutik atera eta gora altxatzen du).

Carole : (Patera idekiz) : Cavaliers cavalières !...

Denak : Oouuééé !!...

Carole : Bittor Hourquebie eta Martine Eramouspe !...

Denak : Oouuééé !!... (**Bittor** eta **Martine** elgarretaratzen dira, dantzatzeko prest).

Carole : Xobür Hourquebie eta Ginette Etchegaray !...

Denak : Oouuééé !!... (**Xobür** eta **Ginette** elgarretaratzen dira, dantzatzeko prest).

Carole : Mattin Hourquebie eta Janine Acheritogaray !...

Denak : Oouuééé !!... (**Mattin** eta **Janine** elgarretaratzen dira, dantzatzeko prest).

Carole : (Gelditu gabe) : Pettan Elicetche eta Béatrice Gastanbide !... Jakes Arotzarena eta Kattalin Mercapide !... Antton Urruty eta Félix Guiroy !... (Denak prest dira dantzarako).

**Paso doble. Slow (bikote berdibnak). Danse du canard. Denak ateratzen dira, lerro lerro.*

Antton : (Bakarrik, godaleta eskuan, erdi lo, lurrean).

Pilla : (Doi doia sartuz, **J**-tik) : Ale Antton, fini da, zato etxera !... (Pilla ateratzen da).

Antton : (Ahal bezala xutituz, kantuz hasten da) : C'est la danse du canard, la la la... (Atera, **J**).

Denborak aldatzen dira.

**Pilla sartzan da taulada erdira. Gelditzen da, eskuak sakelan, gogoetan bezala.*

Kondalari 1 : (**J** tik sartuz) : Bestak irauten du irauten duena, eta gero, berriz lana. Pilla dugu orai etxeko nagusia ; nagusi gazte gaztea !...

Kondalari 2 : (**C** tik sartuz) : Hiruetan hogoi hamarkadan, denborak aldatzen ari dira, eta bisitari ainitz etortzen dira laborari etxetara...

**Bi kondalariak ateratzen dira, bakoitza bere aldetik.*

SAUR : (**J** tik sartuz, dutxulu bat eskuan) : Egun on Pilla.

Pilla : Bai, egun on, Ainciburu jauna.

SAUR : (Sorpresa markatuz) : Ah, ezagutzen nauzu ?

Pilla : Bixtan da, denek ezagutzen zaituzte.

SAUR : (Dutxulua altxatuz) : Ura eman behar duzue... Azkenak zirezte...

Pilla : Ene aitak ez du nahi, badakizu... Pasa zaite bihar.

SAUR : (Irripartsu) : Erran bezala, Pilla... Urarekin bizia aldatuko zauzu... (Ateratzen da, **C**).

EDF : (**C** tik sartuz, prisa bat eskuan) : Egun on Pilla.

Pilla : Bai, egun on, Claverie jauna.

EDF : (Sorpresa markatuz) : Ah, ezagutzen nauzu ?

Pilla : Bixtan da, denek ezagutzen zaituzte.

EDF : (Prisa altxatuz) : Amikuzeko azken etxetarik zirezte : elektrika eman behar duzue...

Pilla : Ene aita ez da batere alde, badakizu... Pasa zaite etzi.

EDF : (Irripartsu) : Erran bezala, Pilla... Elektrikarekin bizia aldatuko zauzu... (Ateratzen da, **J**).

Renault : (**J** tik sartuz, traktur laranja bat eskuan) : Egun on Pilla... Hemen badut zuretzat tresna paregabea : **Renault D 22** !...

Ferguson : (**C** tik sartuz, traktur gorri bat eskuan) : Egun on Pilla... Hemen badut zuretzat tresna ezin hobea : **Ferguson 35^a** !...

Renault : (Kexu) : Barkatu St-Cricq jauna... Hemen nintzen zu baino lehenago !

Ferguson : Barkatu Catalogne jauna : Pillarekin hitzartua nintzen !

Renault : (Harro) : Renault da traktur hoberena !... **Renault D 22** !...

Ferguson : (Berdin) : Ez da aipatu behar ere !... Ferguson da hoberena : **Ferguson 35^a** !...

**Besteak sartzan dira, alde batetik eta bestetik :*

Besteak : (*Oihuka*) : Renault D 22 !... Ferguson 35^a!... Renault D 22 !... Ferguson 35^a!...

***Pony** traktura sartzten da gibeletik... Aitzinatzen da emeki emeki. **Besteak** ixiltzen dira.

Pilla : Nor zira zu ?

Pony : Pony !... Pony traktura, Massey-Harris etxekoa.

Pilla : Presenta zaite hobekiago.

Pony : (*Beste bi trakturak erakutsiz*) : Ez naiz beste bi vedeta horiek bezain ezaguna, bainan izigarri langilea naiz. Bost ehun kilo badituz, hamasei zaldi : denetan ari naiz, belar, arto, patar eta ordoki.

Pilla : (*Denek so egiten diote*) : Zu zaitut gustukoena.

Besteak : (*Ateratzen dira, murmuzika*) : Boohh !... Boohh !... Boohh !... Boohh !...

Pilla : (**Pony** besotik hartzen du eta biak ateratzen dira, irripartsu, **J**).

Jan-Battitt : (*Sartzten da, doi bat trixte, **J** aldean egoiten da*).

Maddi : (*Sartzten da **C***). (*Ikusten du bere senarra ilun dela*) : Zer duzu Jan-Battitt...

Jan-Battitt : (**J** aldetik, ikuslierreri buruz) : Arras untsa badakizu, Maddi...

Maddi : (**C** -tik) : Bainan badaki zer duen egiteko...

Jan-Battitt : (**J** aldetik, ikuslierreri buruz) : Ura, elektrika, traktura, erremorka eta ez dakit zer...

Maddi : (**C** -tik) : Bainan denborak aldatzen ari dira... Segitu behar da...

Jan-Battitt : (*Maddi-ri buruz itzuliz*) : Bainan nola pagatuko ditu horiek guziak ?...

Maddi : (**C** -tik) : Pillak badaki zer egiten duen, zaude trankil.

Jan-Battitt : (**J** aldetik, ikuslierreri buruz) : Eta Antton ?... Zer bilakatuko da ?...

Maddi : (*Bere senarrari buruz joaiten da, **J***) : Ikusi beharko da...

Antton : (*Sartzten da, **C***) : Zaude trankil nagusi, zaude trankil... (*Balisa bere ondoan pausatzen du*).

Maddi/Jan-Battitt : (*Antton begiratzen dute, ez dakite zer erran*).

Pilla : (*Sartzten da, **J** ; taulada erditsutan emaiten da*) : Antton, erran behar deat...

Antton : (*Bere lekutik, **C***) : Bai, badakiat, Pilla. Batzuetan samurtu gira, bainan untsa nintzen zuekin.

Besteak : (*Sartzten dira, **J** ; taulada erditsutan emaiten dira ; denek **Antton** begiratzen dute*).

Antton : Leku bat atxeman dut. "Cheminot" izanen naiz, Puyoo-ko garan.

Pilla : Kuraie on, Antton, eta haugi gure ikustera, nahi dukalarik...

Antton : (Besteri buruz aitzinatzen da ; eskuak tinkatzen dizkiote). (Gibelatzen da, eta balisa eskuan harturik) : Addio, lagunak... etorriko naiz zuen agurtzera...

Besteak : (Eskuak altxaturik) : Addio Antton, laster arte !...

***Antton** ateratzen da, **C** . **Besteek** eskuarekin agurtzen dute eta ateratzen dira, doi bat trixte, **J**).

*Orai denak sartuko dira, bata bestearen ondotik, debruen xixtan. Taulada zeharkatzen dute, ezker/eskuin, eskuan duten paper bat irakurtzen dutela :

Denak (salbu Pilla) : (Ibiliz eta irakurriz) : UGB, SAU, DJA, TVA, REELA, SAFER, ADASEA, KOPERATIFA, PH, PAC, 3 FOIS 15, AMONITRATA, GISUA, BARRUKI, ARDITEGIA, LISIER, STABU, BLONDA, BRETOINA, MANEX, BURU-GORRI, BURU-BELTZA, ESNE, HARAGI, XERRI, AHATE, ARTO, PENTZE, OGI, OLHO, GAGARRA...

***Pilla** sartzen da. **Besteek** inguratzen dute, beti beren lelo beldurgarriak oihukatuz :

Denak (Pillaren inguruan) : (Ibiliz eta irakurriz) : UGB, SAU, DJA, TVA, REELA etc...

***Pilla** "eramaiten" dute, **J** aldera, beti oihukatuz.

*"**Taldeko 1**" multxotik ateratzen da, eta taulada zola/erdira joanez, oihukatzen du :

Taldeko 1 : (Eskua altxaturik) : Mekanika handia !...

***Denak** bere gibelera hurbiltzen dira.

Mekanika handia : (Eginen dute, lelo batzu oihukatuz) : "John-Deere 100 zaldikoa !", "Brabanta hiru ildokoa !", "Arto ereitekoa !", "Belar epaitekoa !", "Enzileuza !", "Moizoneuza !", "Erremorka !", "Preza !", "Round-baleurra !" ...

***Mekanika handiak** segitzen du, sonoan emanikako arrabots batekin.

*Sonoa gelditzen da emeki emeki, eta mekanika ere, prefosta.

Taldeko 1 : (Multsotik ateratzen da) : Bainan lan guziak ez dira maxinekin egiten ahal !...

*"Mekanika handia" desegiten da, denak tauladan barreatzen direla, ikuslierreri begira.

Taldeko 2 : (Berdin) : Miñardia adibidez... Etxeko arnoa beti eginen dugu ?... (Besteek keinu dudazkorra).

Besteak : (Joko berdina) : Etxeko ogia eginen dugu ?... (Besteek keinu dudazkorra). Etxeko sagar-arnoia beti eginen dugu ?... (Idem). Baratzea eginen dugu ?... (Idem). Erleak ukanen ditugu ?... (Idem). Eztia eginen dugu ?... (Idem). Etxeko burra ?... (Idem).

HERRIKO BESTAK ANTOLATUKO DITUGU ?... (Denen aurpegia argitzen da) :

Denak : (Besoak altxatuz) : BAI !!!...

Iluna.


Antzerki testu hau Euskal kultur erakundearen web-atarian zintzilikatua izan da, egilearen baimenarekin, <http://antzerkit.eke.eus> helbidean, Iparraldeko euskarazko antzerki testuak biltzen dituen atal batean.

© Copyright lizentziapean zabaldua da.

Ondorioz, ezin zaio inolako aldaketarik ekarri egilearen baimenik gabe.

Ildo beretik, antzerkia publikoaren aitzinean eman nahi izanez gero, egilearen baimena eskuratu behar da derrigorrez (edota egilearen eskubideak kudeatzen dituen pertsona edo erakundearena).

Harremanetan sar daiteke zuzenenean berarekin edo Euskal kultur erakundearen bidez antzerkia@eke.eus helbidera idatziz.



antzerkit.eke.eus

Ce texte provient du recueil d'œuvres théâtrales en langue basque mises en ligne avec l'accord de leurs auteurs dans une rubrique du site de l'Institut culturel basque à l'adresse <http://antzerkit.eke.eus>.

Il est diffusé sous une licence © Copyright. De fait, aucune modification ne peut lui être apportée sans autorisation de l'auteur.ice.

De même, cette œuvre ne pourra être donnée en public qu'après avoir obtenu l'accord de l'auteur.ice (ou de la personne ou de l'organisme la représentant). Vous pouvez, à cette fin, le/la contacter directement ou obtenir ses coordonnées par le biais de l'Institut culturel basque en adressant un message à l'adresse antzerkia@eke.eus.